

FUNTSEZKO SOZIETATEAK



Gure enpresaren jarduna modu egokian aurrera eramateko hainbat funtsezko erakundeekin harremanak izateko asmoa dugu.

Hasteko, **Zumaiako Udala**rekin harreman estua izango dugu gure enpresaren lehenengo hilabeteetan, eta gerora harremanetan jarriko gara hiru hilabetez behin guk eginiko eta udalarentzat positiboak diren jardunen inguruan hitz egiteko eta gure espazioan hainbat ekintza publiko eta lokalak egiteko aukera emateko prest gaudelako. Izan ere, gure helburutako bat Zumaiako Udalari lur kinetikoen praktikotasuna eta edertasuna erakustea da.

Bestalde, **Pavegen** enpresarekin elkarlanean arituko gara beraiei erositako lurzorua mantenua posiblea izateko. Izan ere, maila nazionalen ez dago oraindik lur berezi hau konpontzen duen enpresarik, beraz, ekoizleekin harremanak mantentzea guztiz beharrezkoa da, urtero egin beharko ditugu eta lurraren ikuskapenak, ondo funtzionatzen duen ala ez jakiteko.

Halaber, **Kutxabank** banketxea ere ezinbestekoa izango da gure proiektua burutzeko, berak eskainiko digulako hasieran behar dugun finantziazioa gure enpresa martxan jartzeko helburuarekin.

Gainera, gure lokala ez dugunez eguneko hogeita lau orduetan erabili beharko, erabiltzen ez dugun ordu hauetan Zumaiako hainbat kirola-talde eta dantza-talde desberdinei eskeiniko diegu, beraz, hauekin harremanak izatea ere komeni zaigu.

Azkenik, gure ikasleek dantza talde moduan jarduteko aukera izango dutenez, beharrezkoa da **Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarre**rekin eta **Zumaiako Dantza Talde**arekin harremanak izatea, hainbat ekitaldi egiterakoan batak bestearekin koordinatzeko. Hauei dantza irakasleak gomendatzeko ere eskatuko diegu, jada bat gurekin lan egiteko prest egon arren hainbat irakasle beharko ditugula aurreikusten dugulako.